

# GAZTEENTZAKO ALDIZKARIA

Julen Solaun

2018/12/29

## **Astekariaren ezaugarri orokorrak:**

Euskal kulturari buruzko astekaria egingo dut. Musika, zinema edo antzerkiak bezalako gai desberdinak planteatu egingo dira bertan astero, eta aurreko zazpi egunen bueltan eman ziren ekitaldiei buruz hitz egingo da. Aurreko asteko ekitaldi sonatuenean kronikak ere idatzi egingo dira, batez ere izen handiko artisten ikuskizunei buruz, askoz errazagoa izango baita salmenta kopurua igotzea eta mantentzea, baita hainbat erreportaje eta elkarrizketa ere. Hurrengo asteko ekitaldiak ere aipatu egingo dira.

Euskaraz argitaratuko da aldizkaria, erabat. Hizkuntzaren mugapen horrek, publiko askoz ere espezifikagoa hartzen du helburu bezala baina, printzipioz, irakurleek fideltasun maila askoz handiagoa izan beharko lukete. Oso gutxi dira euskal kulturari buruz aritzen diren produktu informatibo eta entretenigarriak, eta are gutxiago euskara hutsean idatziak. Gizartean ia hutsik dagoen toki informatibo hori hartzeko aukera oso ona izan ahal daiteke aldizkari honentzat.

Noski, publiko horrek normalean ikasketa maila ertain-altua izango ditu, eta ideologia ezkertiarreko kideak izango dira gehienbat. Kontzientzia sozial handia duten pertsonak, alegia. Ez luke horrela izan beharko baina, euskararen erabileraren portzentajeak ez dira oso altuak, ezta Euskal Autonomi Erkidegoan ere. Batez ere hirietan nabaritzen da populazioaren parte oso handi batek ez duela euskara ia erabiltzen, ezta kontsumitzen ere.

Hala ere, nabaria da gazte ikasien artean euskara maila altuagoa dela, eta euskaraz hitz egiteko eta produktuak kontsumitzeko joera handiagoa dagoela: bai hizkuntza bera, bai euskarazko kultura, eta komunikabideak ere bai. Fenomeno hau herrietan (Bizkaian eta Gipuzkoan, batez ere) ematen da hirietan baino. Horregatik, publiko horretan zentratuko da aldizkaria, nahiz eta hiritarrek ere aldizkaria erosi eta irakurri ahalko duten inolako arazorik gabe.

Aipatu bezala, normalean ezkertiarrek izango dira gazte horiek. Euskal Herrian ezkertiarrek dute batez ere euskararen kontserbazio eta hazkunde horrekiko kontzientzia eta borondatea, nahiz eta eskumako ideologiako pertsona asko ere izan euskaradunak. Hala ere, ezkertiarren artean militantzia eta fideltasun handiagoa sumatzen da eta, ondorioz, horiek izango dira helburu nagusia.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako publikoari Ipar Euskal Herriako biztanleei baino pisu handiagoa emango zaie astekarian (honek ez du esan nahi Ipar Euskal Herrian emandako saiok ez direnik komentatuko edo aldizkaria han salduko ez denik, ezta hango artistak ikusezinak izango direnik ere, baina maiztasun txikiagoarekin aterako dira haiei buruzko informazioak). Euskarazko artista gehienak bi eskualde hauetan ematen dira

normalean, nahiz eta Iparraldeko hiru lurraldeetan ere oso zinemagile, musikari eta antzezle onak atera izan diren urteetan zehar.

Hala ere, haustura kulturala handiegia izan ahal daiteke, Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian hasiera-hasieratik bete-betean fokatzeko eta arrakasta komertziala izateko. Hori bai, astekariak Iparraldeko gazteen artean harrera ona daukala ikustekotan, aldizkari orokorrago bat planteatuko da.

Musikaren, zinemaren eta antzerkiaren artean, musikak izango du atalik handiena aldizkarian. Zinema eta antzerki izugarri onak egiten dira urtero Euskal Herrian, bai euskaraz eta bai gazteleraz. Oso adibide esanguratsua *Handia* filma izango litzateke; euskaraz idatzi eta filmatu zen eta oso harrera ona izan zuen Espainiako eta Europako kritikaren, publiko asko ere joan zen zinema aretoetara euskal folklore eta mitologiari buruzko filma ikustera.

Euskal kultura oso zabala izan daiteke, baina ezin da ahaztu gazteentzat zuzendurik dagoen aldizkaria dela, eta gazteek ikus-entzunezko produktuak kontsumitzen dituztela gehiago sarearen bidez, aretoetara edo antzerkietara joatea baino (ezkerreko eta eskumako ideologietan, euskarazko eta gazteleraz hitz egiten duten gazteetan barneraturik dagoen joera da, gazteen egoera ekonomiko urriak dauka eragin gehien horretan).

Hortaz, musikari emango zaio pisurik handiena. Musika da gazteek (beste behin ere, mundu mailan ematen da hau) zuzenean gehien kontsumitzen duten arte forma. Gainera, kontzertu asko eta asko dohain izaten dira (herrietako jaietan adibidez) eta horrek animatu egiten ditu gazteak zuzenean kontsumitzera. Beste zenbaitetan, Berri Txarrak taldearen kasuan, esaterako, ordaindu beharreko kontzertuak eskaini egiten dituzte, eta BEC bezalako areto erraldoiak betetzeko adina kapazitate dute.

Kontzertuak garestiak izan ahal dira, zinema baino gehiago eta, zenbaitetan, antzerki obra hoberenak baino gehiago ere: aipatutako Berri Txarrak edo Esne Beltza taldeen kasu. Hala ere, askoz ezagunagoak dira euskal abeslariak euskal aktoreak baino eta euskal zinemagileak baino.

Are gehiago, zinema eta antzerkiak errespetu handiz kontsumitu behar diren arte formak dira, ixilik eta eserlekuan geldirik. Kontzertuak, aldiz, mota askotarikoak izan ahal daitezke, baina normalean zutik eta oihuka ikusi eta entzun ohi dira. Festa bat izan ohi dira eta, horregatik agian, edozein herriko urteroko jaietan hainbat eta hainbat kontzertu antolatu egiten dira herria girotzeko asmoz.

Zehaztu beharra dago gazteak erakartzen dituzten kontzertu hauen eta musika talde hauen generoak oso espezifikoak izan ohi direla. Gaur egun ska, rock eta rap dira gazteen artean modan dauden euskarazko musika generorik handienak. Beste hainbat daude, noski, baina zinemaren eta antzerkiaren kasuetan bezala, askoz ere zailagoa izango da gazteak horrekin soilik erakartzea.

Antzeko zerbait gertatzen da bertsolaritzarekin. Euskarazko arte formarik tradizionalena izatea baliteke baina, nahiz eta zenbait gaztek bertso afarrietan edo bertsolaritza taldeetan

parte hartu, ez dira nahikoa izango astekari baten produkzioa ekonomikoki mantentzeko. Bertsolaritzak, hala ere, lau urterik behin ekitaldi erraldoia antolatu egiten du Euskal Herriko bertso txapelketaren finala dela medio. Beraz, bertsoek ere sekzio txikia izango dute aldizkarian, nahiz eta ez diren asteroko maiztasunarekin jorratuko.

### **Astekariaren atalak:**

Aldizkariaren izena “Bizirik nago!” izango da. Izen laburra da, erraz gogoratuko dena eta, nahiz eta bi hitz soilik erabili, ideia asko biltzen ditu izenburuak. Luzeagoa izatekotan, nahasketan erortzeko arriskua dagoela uste dut. Zailagoa izango litzateke aldizkariak oihartzun puntu hori lortzea gazteen artean.

Bizitza zer den planteatu egiten du, batez ere harridura ikur horren bidez. Bizitza gauza asko dira, pertsona bakoitzarentzat esperientzia bakar eta errepikaezina. Erabateko gozamenaz edo amaitu ezineko sufrimenduz beterik dagoen hori da. Baina, bizirik egotea paregabea da, ia sinestezina. Arteak badu bizitzan eragina, eskutik helduta doaz bata zein bestea.

Artea bizitzaren aldeko ospakizun handienetako bat da, baliteke handiena izatea ere. Zer izango litzateke gizakia arterik gabe? Baliteke existentzia bera, gaur egun ulertzen dugun moduan, ezinezkoa izatea. Animalia arrazionalak gara, eta arrazoiak, nahi eta nahi ez, artera garamatza. Bizitzaren edertasuna interpretatzeko, edo norbanakoaren sentimenduak, emozioak eta beldurrak azaltzeko medioa, edota entretenimendu soil eta efektiboa izan ahal daiteke.

Aldizkarian batez ere interpretazio generoak landuko dira. Era sakonenean behintzat. Elkarrizketak, erreportajeak eta kronikak izango dira ardatz. Arrazoi oso sinplea da: askoz interesgarriagoa da gazte batentzat gustuko duen musika talde batek emandako kontzertu bati buruzko kronika koloretsu eta arina irakurtzea informazio hotz eta aspergarria baino.

Gainera, informazioarekin askotan gertatzen den bezala, baliteke aipatutako datu eta artegile asko eta asko ezezagunak izatea gazte gehientzat, eta haientzat interesik ez izatea. Honek ez du esan nahi informazio generoa jorratuko ez denik, baina kontrolpean mantenduko da. Esaterako, hurrengo astean emango diren arte ekintza gehienak, edo gazteentzat interesgarrienak direnak, aipatu egingo dira, baita musika disko, film eta antzerki berriei buruzko informazioak landuko dira ere, batez ere produkzio fasean daudenean eta estreinatzeko denbora gutxi falta denean (hilabete bat inguru, normalean).

Idazkera euskara batuan izango da, halabeharrear. Gazteek normalean euskalkiak erabili egiten dituzte haien artean berba egiteko, eta euskara batua klaserako soilik erabiltzen dute. Musika, filmak eta antzerkiak ere euskalkian egiten dira maiz, errealitatearekiko fideltasuna dela medio edo autoreei errazagoa zaielako haien ideiak horrela plazaratzea.

Hala ere, Euskal Herria osoan banatuko den aldizkaria izanik, ezin dira inongo gazteak kanpoan utzi. Ez du honek euskara batuarekiko aldarrikapen neurria izan nahi, ezta euskal

modelo orokor eta egokia sortzeko helbururik izango. Aldizkari bat atera eta aurrera eramatea oso garestia da, eta publiko potentzial murriz hori ezin daiteke kanpoan utzi.

Gainera, sare sozialetatik eta artetik at, euskarazko ia idazki guztiak euskara batuan egiten dira. Eskola, institutu eta unibertsitateko klase gehien-gehienak euskara batuan ematen dira, eta testu liburu guztiak euskara batuan daude idatzita. Irakurleei ez zaie arraro egingo. Etorkizun ekonomiko hobereana duen euskara mota da, inondik inora.

Elkarrizketetan, esaterako, oso ohikoa izango da elkarrizketatuek haien euskalki pertsonalean erantzutea galderak. Kazetariaren lana izango da euskara batuan transkribatzea. Aldizkariak kazetariari eskatuko dion arau etikoetako bat hori izango da, argitalpenari berari eta irakurleei sor zaien errespetua dela eta, elkarrizketa, aipu eta iturri guzti-guztiak euskara batura transkribatzea.

Erabat debekatuta egongo da edozein kazetarirentzat gaztelerazko hitzak eta esaldiak soilik itzultzea, interpretatu beharko dira. Baliteke erdaraz egokia den esaldi bat euskaraz ez izatea. Euskara izango da ardatz, nahi eta nahi ez. Irakurleei zor zaien errespetuagatik, eta hizkuntzari eta euskal kulturari zor zaion guztiagatik egin beharko da horrela. Euskara mantentzeko eta hobetzeko biderik egokiena, eta agian bakarra, zuzentasunez idaztea izango da.

Etikarekin eta kazetariaren jokabidearekin jarraituz, ezin izango da ezer argitaratu alde aurretik grabaturik ez badago. Ez gara ikerketa kazetaritzan fokatuko den aldizkaria, eta ez dugu nahi, baina iturriak grabatu eta gorde beharko dira informazioaren kalitatea bermatzeko. Artea bizitzaren aldarrikapena den momentutik bertatik guk ere jokabide berbera hartuko dugu, eta ez dugu norbanakoa elkarrizketa baten bidez edo, erreportaje baten bidez estutu batean jarriko, berak erantzun gogor edo iraingarria zuzenean eman ezean.

Beste arazo handi bat egongo da irakurleek pertsona famatuak estutuan jartzeko grina ikustekotan, inork ez du gurekin elkarrizketarik edo kolaboraziorik egin nahiko. Eta, gazteen atentzioa deitu eta fideltasuna mantentzeko gakoetako bat haien intereseko pertsonen protagonismoa ematea izango da.

Bestalde, kazetariak zenbait jarrera arau bete beharko ditu enpresan. Hemen, gainera, azalduko dira eta estilo liburuan gehiago sakonduko da arau horietan, eta beste zenbaitetan. Ezin izango du inolako plagiorik egin. Kazetari bakoitzak bere estilo pertsonala du eta hala mantentzea nahi dugu, hortaz beste lankide baten lana kopiatzeak ez dauka tokirik gure aldizkarian, kazetari horrek plagioa ikusten den momentuan bertan barkamena eskatu beharko du publikoki bere sare sozialen bitartez eta bi hilabetez egongo da aldizkarian parte hartu gabe.

Urrezko bigarren araua informazioa benetan lortzea izango da. Hau da, ez du balio izango kontzertu bat telebistatik ikusteak eta haren kronika idatzi eta argitaratzeak. Zuzeneko ekitaldiak lantzen dituen kazetariak zuzenean ikusi beharko ditu, nahi eta nahi ez. Kroniken eta erreportajeen kasuan ezin izango da lan iraingarri eta kritika zorrotzegirik

egin, aldizkaria kaltetzeko arriskua baitago. Aldizkariak artikulu hori berriz idatzi eta egokitze eskubidea gordetzen du.

Erreportajeetan iturri guztiak, pertsonalak zein dokumentalak, benetakoak izan beharko dira, eta kazetariak hala frogatu ahal izango du edozein momentutan. Informazioak grabatu eta gure datu basean gordeko dira. Erreportaje eta albiste sinpleetan informazioa nondik lortu den aipatu eta iturriak zeintzuk izan diren zehaztu beharko da.

### **Erredakzioaren antolaketa eta lan prozesua:**

Logikoa denez, 16 orrialdeko astekaria egiteko ezinezkoa da langile asko izatea, ez dira behar. Aldizkari bat sortzea eta inprimatzea oso garestia da hasieratik bertatik, eta oso zaila salmenten bidez soilik mantentzea. Are zailagoa da soldata duinak mantendu nahi badira. Hortaz, 7 kazetari egongo dira astekarian lan egiten.

Bakoitzak eginkizun konkretuak izango ditu, bestela askoz ere lan gehiago egin beharko zuketena; askoz errazagoa, erosoagoa eta arinagoa da lanak era espezifikotan banatzea, nahiz eta denek izan beharko duten argazkiak ateratzeko adina abilezia. Oso garestia izango litzateke argazkilari profesional bat hasieratik kontratatzea, batez ere bideoak behar ez dituen paperezko aldizkari batentzat. Hala ere, etorkizunean salmentak kopuru handia badago, argazkilari on bat kontratatzeke esfortzua egingo du astekariak.

Lehenik eta behin, astero tratatu beharreko agenda kazetari guztien arteko bilera batean erabakiko dela aipatu beharra dago. Bilerak asteazken goizetan egingo dira, aldizkariaren ale berria argitaratzen den momentuan bertan. Nahiko erabaki demokratikoak hartzen saiatuko da aldizkaria eta kide bakoitzak bere iritzia eta bozka emateko aukera izango du. Gehiengoaren borondatea errespetatuko da, nahiz eta adostasunik lortu ezean zuzendariak azkeneko hitza izango duen.

Astekaria asteazkenean argitaratuko da oso arrazoi sinple batengatik, ekitaldi eta ekintza kultural gehienak asteburuan zehar izan ohi dira eta, hortaz, zuzenean ikusteko eta kronikak idatzi ahal izateko adina denbora behar dute kazetariak, baita aldizkaria maketatu eta inprimatzeko ere. Asteburuetan zehar lan egin beharko duten kazetariak astearteak izango dituzte libre eta, hiru asterik behin asteburu osoa gehi ostegun, ostiral eta astelehena.

Lanaldiak 8 ordukoak izango dira normalean, astelehenetik ostiralera. Baina, baliteke zuzenekoak ostiral batean ikusi behar izatea eta egun horretan, kazetari batek edo bik, ordu gehiago sartu behar izana. Asteburuetan zehar ez da erredakziotik pasa beharko, baina zuzenekoak ikusten dituztenek astelehenean idatzi beharko dituzte kronikak.

Zuzendariak, editorearen eta publizistaren lanak egingo ditu ere. Berak ez ditu, printzipioz, artikuluak idatziko, baina beste kazetariak idatzitakoak zuzendu eta argitaratzeko moduan dauden ala ez erabaki beharko du. Gainera, euskara erabat kontrolatzen duen pertsona izango da, astekariaren hizkuntza kalitatea mantentzeko. Erantzukizun handiena izango du eta, baliteke, lan bolumen handiena berak izatea ere, astelehenetik ostiralera egingo du lan soilik.

Publizitatea ere kontrolatuko du. Saiatuko da publizitate gehiegi ez sartzen. Printzipioz, aldizkariaren erdialdeko orri oso bat publizitatera zuzenduko da, publizitate erreportaje moduan. Ia ezinezkoa izango da bestela publizitaterik gabe salmenten bidez soilik aldizkaria mantentzea.

Beste kargu garrantzitsu bat editore grafikoak izango du. Honek ez du idatziko, ezta editatuko ere. Baina berak aldizkariaren elementu guztiak beharrezko ordenan eta, begiratzeko orduan, atseginak eta erakargarriak izateko eran kokatuko ditu. Aldizkariak formatu garbia nahi du izan, hau da, ez dugu gehiegizko elementu grafikorik sartuko, horrek idatzitakoak ulertzen eta irakurtzen oztopatuko bailuke.

Geratzen diren beste bost langileak kazetari peto-petoak izango dira. Haietako hiruk kronikak landuko dituzte, beste batek elkarrizketak eta bostgarrenak erreportajeak. Denek jorratuko dituzte, baina, albisteak erredakzioan daudenean, eta aipatutako zeregin horiek lantzen ari ez direnean.

Hiru kronika idazleetatik bik soilik egingo dute lan asteburuan zehar, hirugarrenak, lehen aipatu bezala, bost egun jarraian izango ditu libre aste horretan. Kronikagile bakoitzak bi edo hiru ikuskizun ikusiko ditu asteburu batean zehar. Baliteke jaialdi bat egotea eta hiru ikuskizun segidan ikusteko aukera izatea bi langileetako batek: Donostiako zinemaldian ala Durangoko Azokan gertatzen den bezala, esaterako. Horrek balioko luke, asteazkenean izandako bileran hala finkatu bada. Artista bakoitzaren banakako kronika egingo baita normalean, ez jaialdi osoaren kronika.

Ikusitako ikuskizun guztien artean bi kronika idatziko dira soilik, printzipioz. Kazetari bakoitzak bat idatziko du, eta bertan ateratako argazkien artean esanguratsuena aukeratuko du, editorearekin eta editore grafikoarekin batera. Normalean, asteroko ikuskizun famatuena eta gazteen artean oihartzun handiena izan duenak izango du luzera gehien aldizkarian. Bestea laburragoa izango da, asteazkenetako bileran erabakiko da, printzipioz, zeinek izango duen garrantzirik handiena.

Erreportajeak egingo dituen kazetariak astero bana jorratuko du. Hala ere, erreportajearen gaia hilabete lehenago aukeratuko da bilera baten bidez. Horrela, kazetariak denborarekin hitz egin ahalko du iturriekin, nahiz eta bi orrialde soilik idatzi beharko dituen. Ez da erreportaje sakona izango, beraz. Entretenimenduan soilik fokatuko den kazetaritza pieza izango da. Honek astelehenetik ostiralera lanaldiak izango ditu beti.

Elkarrizketatzailearen prozesua oso antzekoa izango da. Hilabete lehenago nori egin ahal zaion elkarrizketa planteatuko da, eta zenbait aukera jarriko dira mahai gainean, batek huts egingo balu. Hiru orrialdeko elkarrizketa izanik, kazetariak dezente ikasi beharko du elkarrizketatuari buruz, kalitate ona bermatzeko. Kazetari honek ere astelehenetik ostiralera egingo du lan.

### **Astekariaren lehenengo zenbakia:**

Azalean, aldizkarian kontatuko denaren punturik esanguratsuenari buruzko argazki bat aterako da. Titularra letra handi eta deigarri idatziko da argazkiaren azpiko partean.

Horretaz aparte, beste zenbait atalei buruzko informazio laburrak aipatuko dira azalean egingo diren lauki txikietan (letren formatuak irudikatuko ditu laukiak). Barruko informazioan, aipatu beharra dago goitik beherako testu barra finetan idatziko direla testuak, lau barrak orrialdearen zabalera hartuko dute.

2. orrialdean, berriz, euskal kulturaren historian zehar eragina izan duten gertakari nagusiak azaldu egingo dira sekzio batean, labur-labur. Komeni da gazteek gure kulturaren historiaren nondik-norakoak ezagutzea, gaur egungo egoera hobeto baloratu ahal izateko. Atal honetan hizpidearen argazki edo marrazki bat agertuko da goiko ezkerreko partean. Ez da erreportaje bat izango eta ez da horrela landuko, albiste bat balitz bezala tratatuko da.

Elkarrizketak 3 orrialdeko luzera izango du eta aldizkariaren hasieran bertan kokatuko da, azalaren eta aurkibidearen ostean, 3-4-5 orrialdeak, alegia. Erreportajeak, aldiz, bi orrialdeko luzera izango du. 7. Eta 8. orrialdeak okupatuko ditu, beraz. Elkarrizketaren lehenengo orrialdean ezkerreko partean elkarrizketatuaren irudi handi bat agertuko da, bertikal eta zutik. Beste bi orrialdeetan goiko partean kokatuko dira beste irudi esanguratsu eta txikiagoak.

Elkarrizketari dagokionez, artistari bere lanari buruz hitz egiteko aukera emango zaio, baita sormen prozesuan izan dituen nondik norakoei buruz hitz egiteko ere. Horrela, atal honen izenburua “Zer eta nola” izango da. “Zer” horrek elkarrizketatuaren lanari berari egiten dio erreferentzia, zein asmorekin sortu duen, zer esanahi duen eta zer esperientzia izan den berarentzat.

“Nola” horrek sormen prozesuari egiten dio erreferentzia. Inspirazioa nola lortu zuen galdetuko zaio, nola bizi izan zuen produkzio berri horren sormen prozesua. Askotan entzun izan dira artisten sormen krisialdiak, esaterako. Haiei nola aurre egiten dieten galdetu egingo zaie elkarrizketatuei. Elkarrizketatuak beti izango dira pertsona famatuak (ahal den heinean), aldizkariaren punturik erakargarriena beharko dute izan. Normalean abeslariak izango dira.

Elkarrizketa eta erreportajearen artean libre geratzen den orrialdean, seigarrenean, “Etorkizunari begira” atala sartuko da. Honetan, Euskal Herriko artista berriei buruz hitz egingo da. Asko dira talentu handiko euskarazko artistak, baina oso gutxi dira merezi duten balorazioa lortzen dutenak. Sekzio honen bidez artista berri horiek ezagutzera eramatea bilatuko da. Honetan, artisten argazki txiki bana agertuko da. Hiru artista berri agertuko dira astero.

Erreportajeetan, hain ezagunak ez diren pertsona eta produktuetan sakonduko da. Sekzioaren izenburua “Egun bat...” izango da. Libre geratu den tarte horretan toki konkretu baten izena sartu ahal daiteke, adibidez: Egun bat Arriaga Antzerkian (non antzerki denboraldiaren, eta antzerkiaren beraren, nondik norakoak azalduko diren). Erreportajearen lehenengo orrialdean, goiko partean, eta bigarren orrialdean, beheko partean, laukizuzen formako bi argazki aterako dira. Honek erreportajea marko baten barruan dagoela iradoki egingo du.

Tartean, 9. orrialdean, publizitatea kokatuko da, musikarekin erlazionatutako instrumentu baten publizitate erreportaje moduan. Ahal bada, soilik iragarki bat agertuko da orrialde horretan, askoz ere garbiagoa eta ikusten errazagoa baita. Ez da astekaria publizitatearen irudiarekin gehiegi erlazionatu nahi, gaur egungo gazteek publizitate eza asko baloratzen dutelako. Hala ere, eta publizitaterik gabe hedabide fisikoak mantentzea ezinezkoa denez, mota honetako iragarki garbi eta sinpleak jartzea erabaki da, ahal izatekotan. Goiko partean produktuaren argazki bat aterako da, eta segidan idatzitako partea. Publizitatea dela abisatu egingo da beti.

Ondoren, aurreko asteko ekitaldiei buruzko kronikak aurkituko dira. Atal honen izena "Beste behin" izango da, eta asteko kontzertu (normalean, noizean behin beste arte motetako kronikak sartuko dira ere) handienaren eta kalitate handiko beste ikuskizun baten (kontzertua ere, normalean) nondik norakoak azalduko dira. Ez da, hala ere, kritika zorrotzegirik egongo. Ekitaldia txarto antolaturik egongo balitz, edo kalitate txikiko interpretazioak egongo balira, beste ekitaldi baten kronika egingo litzateke (4-5 ekitaldi ikusiko dira zuzenean astero), kasuan kasu.

Lehenengo kronika bietan laburrena izango da, eta orrialde bateko luzera izango du soilik. Aldizkariaren 10. orrialdean kokatu egingo da. Honetan, batez ere ikuskizun espezifikagoak landuko dira, publiko zertxobait murriztagoa izango duten horiek, nahiz eta oso kalitate handia izan. Honetan, ekitaldiaren argazki bat agertuko da orrialdearen goiko partean, kronika hasi baino lehen.

Bigarren kronika, aldiz, 11-12 orrialdeen tarte horretan kokatuko da. Dezente luzeagoa izango da, eta aste horretako gazteentzat egondako ikuskizun deigarrienari buruz hitz egingo du. Bilbon egondako Berri Txarrak taldearen kontzertua izan ahalko litzateke oso adibide ona. 30.000 ikusle baino gehiago egon ziren San Mamesen, gehienak gazteak. Oso adibide zehatza da eta, normalean, euskal talde batek ez du horrelako kontzerturik emango astero, baina gazteen interesen nondik norakoak bideratzeko balio du. Lehenengo orrialdearen goiko partean ikuskizunaren argazki handi bat agertuko da, eta bigarren orriaren goiko eta eskumako partean beste txikiago bat.

13-14 orrialdeak albisteak emateko erabiliko dira. Aste horretako Euskal Herriko artista garrantzitsuenen berriak komentatu eta, batez ere, produkzioan eta estreinatzeko oso hurbil dauden produktu eta ikuskizunei buruzko albisteak emango dira. Hala ere, zenbaitetan, aldizkariaren espazio osoa bete ahal izateko, hain ezagunak ez diren, edo hasi berri diren, taldeen informazioak ere emango dira. Orrialde bakoitzean 3 albiste inguru emango dira, eta laukizuzenetan antolatuko dira. Albiste bakoitzak bere argazki propioa izango du ezkerreko aldean.

15. orrialdea hurrengo zazpi egunetan zehar izango diren ikuskizunak denboran eta geografian kokatzeko (hau da, non eta noiz izango diren) izango da. Sekzioaren izenburua nahiko neutroa izango da: "Datorren astean, zer?". Izen laburra eta ulerterraza da, eta ez da askoz gehiago beharko horrelako informazio sinpleak tratatzeko. Ez da argazkirik egongo, taula moduan adieraziko baita, zazpi zutabe horizontaletan banatuta.



16. eta azken orrialdean, beste argazki handi bat aterako da, letra gabe. Han aste horretako musika kontzertu garrantzitsuenaren argazki erraldoia egongo da. Aldizkariaren atzeko parteak deigarria behar du izan. Eta zer ote da San Mamesen edo Anoetan emandako kontzertu garrantzitsu baten argazki nabarmen bat baino?

### **Estilo liburua:**

Aipatu bezala, euskararen erabilerari garrantzia handia emango zaio astekarian. Baina ez da bakarrik euskararen erabilerari egokiari buruz izango, euskara beste hizkuntzen maila berean jartzea izango da aldizkariaren beste gurarietako bat. Hori dela eta honako bost arau hauek jarriko dira estilo liburuaren atal linguistikoak.

### **Hizkuntza arauak:**

#### *Izen propioak:*

Izen propioak, originalak alfabeto erromanikoan idatzita badaude, diren bezala errespetatuko dira. Adibidez, askotan irakurri egiten dira Mariano Raxoi bezalako izen moldaketak, baina errealitatean Mariano Rajoy da. Benito Lertxundi ez da Benito Lerchundi izango gazteleraz. Izenak errespetatzea funtsezko puntua izango da beraz euskararekiko errespetua mantendu ahal izateko.

#### *Izen artistikoak eta taldeen izenak:*

Izen artistikoak, musika taldeak eta antzerki eta dantza taldeen izenak diren bezala agertuko dira, inolako komatxorik edo etzandako letrarik gabe. Izen propio normal bat bezala izango balira bezala tratatu egingo dira. Hala ere, haien abestien tituluek, filmen tituluek, antzerki edo dantza obraren izenak bai agertu egingo dira komen artean, artistaren obraren parte bat baita.

#### *Hitz simple eta ezagunak:*

Nahiz eta euskara batuan onartutako hitzak izan, irakurleen gehiengoarentzat ezezagunak izan ahal daitezkeen hitzak ez dira aldizkarian onartuko. Adibidez, ez da “idoro” hitza “aurkitu” hitza beharrean erabiliko. Irakurleen gehiengoak ez luke ulertuko eta, nahiz eta esaldiaren testuinguruan ulergarria izan, zailegia izango litzateke eta esfortzu mentala eskatuko lieke irakurleei. Gazteentzako aldizkari batek entretenigarria izan beharko du lehenik eta behin. Astekari irakurterraza izango da beraz.

#### *Hitz atzerritarrak:*

Arrazoi berbera dela medio, ez dira originalean atzerritar hizkuntza batean idatzitako hitzak euskarara itzuliko, hitz horiek gazteen artean estandarrak bihurtu badira. Adibidez, talde kirol askotan, denboraldia hasi baino lehen, “team building” direlakoak egin ohi dituzte. Hauetan, taldekideek haien artean ezagutzeko aukera dute eta talde dinamikak hobetzea da helburu nagusia. Euskaraz ez litzateke “talde eraikitzea” deitu beharko.

“Team bulding” kirolarien artean estandarizatuta dagoen espresioa da eta horrela mantentzea komeni da gehien; esan bezala, irakurterraza izan behar du aldizkariak.

*Hitz atzerritarrak letra etzanez:*

Harira, “team bulding” bezalako hitzak komatxoen artean idatzi beharko dira. Ez dira euskarazko hitzak eta ala identifikatu behar dira. Alde batetik, ez dugu dena euskaratu nahi ulermena erraztu ahal izateko, baina, euskarak merezi duen errespetua dela eta, identifikatu egin beharko ditugu euskaldunak ez diren hitzak ere.

### **Arau etikoak:**

Hizkuntzaren gaia alde batera utzita, astekariaren langileek zenbait jarrera eta arau etiko errespetatu beharko dituzte. Astekariaren prestigio profesionala dago jokoan, eta kazetaritzaren, profesio bezala, garrantzia eta influentzia ere bai. Sinesgarritasuna eta zintotasuna betidanik izan dira kazetaritzaren ardatz eta, gaur egun, galtzen ari dira bata zein bestea komunikabideetan. Hauek berreskuratu eta irakurleek gure aldizkariaren informazio, interpretazio eta iritzietan konfiantza mantentzeko funtsezko arauak egongo dira.

*Plagioa eta konprobatu gabeko informazioak:*

Testuan zehar behin baino gehiagotan aipatu bezala, ezin izango da plagiorik ala konprobatu gabeko informaziorik argitaratu. Kazetariaren eta aldizkariaren izen onari sekulako kaltea egingo dion jarrera eta jokabidea izango litzateke. Plagioa egiten duen kazetariak publikoki barkamena eskatuko du bere sare sozial pertsonalen bidez, eta aldizkariak barkamena eskatuko du beste komunikatu bat atera ostean. Kazetariak 3 hilabeteko lan suspentsioa izango du, birritan egitekotan aldizkariak kaleratuko du. Konprobatu gabeko informazio argitaratzekotan, berriz, 2 hilabeteko lan suspentsioa izango du. Konprobatu gabeko hiru informazio argitaratzekotan, kazetaria automatikoki kaleratuko du astekariak.

*Kronika idazleen betebeharra:*

Kronikak ikuskizunak zuzenean ikustekotan soilik idatzi ahalko dira. Testuan zehar esan bezala, kronika idazleek zuzenean ikusi beharko dute gerora idatziz azalduko duten ikuskizun hori. Egia da askotan irakurleak ez duela desberdintasunik nabaritu baina, aldizkariaren kalitatea eta fidagarritasuna direla medio, horrela egin beharko da. Gainera, askotan, bideo batek ezin izango du zuzeneko atmosfera hori harrapatu. Kronika idazleek ikuskizunaren arima interpretatuko dute. Mota honetako hiru falta egitekotan, kazetaria 2 hilabetez suspenditu egingo da. Publikoki barkamena eskatu beharko du bere sare sozialen bidez, baita aldizkariak ere.

*Erreportajeen iturriak:*

Erreportajeak iturri fidagarri eta solidoak erabiliz egingo dira. Ezin izango da erreportaje bat egin Wikipedian aurkitutako informazioa oinarri bezala erabiliz. Erreportaje bat egiteko, gainera, kalitatezko 5 iturri desberdin eta fidagarri kontsultatu beharko dira

gutxienez. Hala ere, kazetariaren lanaldien denbora kontuan harturik, eta astero erreportaje berri bat argitaratu behar duela ulerturik, ez dira iturri guzti horiek pertsonalak izan beharko. Kazetariaren beste betebeharrak bat iturri horien informazio eta aipuak grabatu eta gordetzea izango da, aldizkariarentzat edozein arazoren aurrean fidagarritasun bermea izango da, dudarik gabe.

*Elkarrizketatua zuzendu:*

Elkarrizketatuarekiko jarrera egokia izango da. Euskal Herrian, nahiz eta gero eta gehiago egon, ez daude oraindik nahi beste euskarazko artista. Zaindu behar dira eta errespetatu. Ez zaizkie erabateko galdera konplikatu eta korapilatsuak egingo eta, are gehiago, elkarrizketatuak edonolako akatsik egiten badu kazetariaren betebeharra izango da zuzentzea. Erreportajeetan gertatzen den bezala, kazetariak elkarrizketa grabatu beharko du hasieratik amaierara.

*Albisteen trataera:*

Albisteak tratatzerako orduan informazioen egiazkotasuna konprobatu beharko da eta informazioaren iturria zein den aipatu beharko da testuan. Zenbaitetan ikusi egiten dira informazioa nondik datorren aipatzen ez duten hedabideak (batzuetan haiek sortutakoa dela iradokitzeke, edo kazetariaren akats bezala), batez ere bertsio digitaletan; bereziki onartezina da paperezko aldizkari batean. Profesionaltasun falta oso larria iradokitzen du.

**Irudiak:**







